

Entzunaldi eta deialdi solidarioa

EROSKI-K BEZEROAK ETA GKE-AK DEITU DITU 2022KO ELKARTASUN PROIEKTUAK HAUTATZERA

- Askotariko eragileak inplikatzen ditu, hala nola gizarte erakundeak, langileak, bezeroak eta herritarrak, Elkartasun Zentimoen programaren ongintzako proiektuak hauta ditzaten
- Horretaz gainera, gizarte erakundeek izena eman dezakete Zero Hondakin programaren bitartez elikagaiak hartzeko
- Bi ekimenekin, EROSKIk sei milioi euro baino gehiago bideratu ditu aurreko urtean

Elorrio, 2021eko abuztuaren 30a.- [EROSKI](#) martxan jarri du ekimen bat gizarte erakundeen, langileen, bezeroen eta herritarren iritziak eta proposamenak jasotzeko eta *Elkartasun Zentimoen* programaren gizarte ongintzako proiektuak hautatzeko; gainera, *Zero Hondakin* programaren bitartez 2022an dohaintzan emandako elikagaiak jasoko dituzte erakundeek.

EROSKIk prozesu gardena eta oso parte hartzailea diseinatu du gizarte osoaren ekarpenak jasotzeko. Hala, ez bakarrik EROSKIko bezeroek eta langileek, baizik eta interesa duen edozein herritarrek helarazi ahalko ditu elkartasunaren arloan dituen lehentasanak eta kezkak. Aldi berean, GKEek eta irabazi asmorik ez duten beste erakunde batzuek beren proiektu sozialak aurkeztu ahalko dituzte. Azkenik, Aholku Batzorde batek, zeina osatua egongo baita kooperatiben munduko jendearekin, hirugarren sektorekoekin eta beste interes talde batzuekin, laguntza emango dio EROSKIri gizarte zibilak hautariko kausetan ondoena txertatuko diren proiektuak hautatzeko, eta horiek izango dira EROSKIk eta haren bezeroek 2022an emango dituzten elkartasun zentimoen onuradunak. Hautaturiko proiektuen zerrenda datorren urteko urtarrilean argituko da.

"EROSKIn uste dugu guztion partaidetza (langileena, bezeroena, herritarrena eta gizarte zibilarena) manerarik aberasgarriena dela elkartasun ekimen sendo bat eraikitzeko (kasu honetan Elkartasun Zentimoak); modu erraz bat da herritarrek eta bezeroek kolektiborik behartsuenei laguntzeko. Hori dela eta, gure izaera kooperatiboari eta entzuteko konpromisoari leial, deialdi ireki bat egin dugu, eta guztiok zaudete gonbidatuak parte hartzera", azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Elkartasun deialdi honi esker, gainera, EROSKIren dendetako elikagaien eta beste soberakin batzuen dohaintzak jasotzeko interesa duten entitateek ere izena eman ahalko dute Zero Hondakin programan.

EROSKIk erraz betetzeko moduko bi inprimaki digital eratu ditu, jendeak eta erakundeek bere proposamenak helarazteko modua izan dezaten (eros.ki/escucha-solidaria eta eros.ki/convocatoria-solidaria).

Elkartasun Zentimoen programa

Elkartasun Zentimoen programaren bitartez, EROSKIren bezeroek dohaintza txiki bat egin dezakete aldi bakoitzean dagoen ongintzako kausarako erosketa txartelarekin edo sakelakoarekin ordaintzen dutenean. Ekarpena, beti borondatezkoa eta isilpekoa, 10 zentimoko kopuru txiki sinboliko bat da 5-30 euroko erosketetan eta 20 zentimokoa 30 eurotik gorakoetan.

Elkartasun programa horri esker, azaroan atera zenetik, bi milioi euro baino gehiago eman dituzte, eta, horien bidez, askotariko proiektuak finantzatu dituzte; besteak beste, haurrentzako laguntzak, ingurumenaren kontserbazioa, minbiziaren aurkako borroka, adinekoentzako laguntzak, gizarte bazterketa jasateko arriskuan direnak, desgaitasunak edo endekapenezko gaixotasunak dituztenak eta genero indarkeriaren biktimak.

Zero Hondakin programa

EROSKIk elikagaiak ez alferrik galtzeko sortu zuen Zero Hondakin ekimena. Programak jarduera protokolo bat artikulatzen du; hala, ziurtatzen dugu dohaintzan emandako produktu fresko eta elikagai guztiak jateko moduan daudela apaletatik kentzen direnean gure bezeroei freskotasun maximoaren eta ontziaren itxuraren konpromisoa betetzeko. 2020. urtean, EROSKIk 4.648 tona janari eta higiene arloko produktu baino gehiago eman zituen kolektiborik behartsuenentzat. EROSKI dagoeneko ehundik gora gizarte erakunderekin ari da lanean Zero Hondakin programa gauzatzeko.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)